

38. BASARRI BERTSOPAPER SARIA

2022

Saria: ANER PERITZ MANTEROLA (Aner Euzkitze)

"Zopa hozten ari zaizu"

Doinua: Calle melancolía / Gure herrian ligatzea

1. Zuk ez galdetu zergatik,
badugu aski ibilgu,
ikusten dizut bertatik
nahiz ta bi ezpainak bildu.
Ez dakizunik ez dakit.
Hau zer-nola darabilgu?
Hitz egin zazu zuegatik
ta ez nigatik isildu.

2. Bakoitzak besteen Nirvana
sentitzen du zingiratsu
ta hala ere nigana
hurbiltzearren biba zu!
Bi begiri begi bana,
isiluneak dira su,
zer da esan zenidana
ta zer esan nahi didazu?

3. Hitzetik batuok noizbait
hitza badugu lanabes,
gogora ditzaket zenbait
hizketaldi boz herabez:
noiz egiten duzun gogait,
zeri degiozun amets...
zenioena ahaztu zait;
isildu zenuena ez.

4. Izango ez da ba haizu
urteen iragaitea!
Haserako su dirdaitu
hura bihurtu zait kea.
Bai, zuri ari natzaizu.
Lasaitzen saia zaitea,
zopa hozten ari zaizu,
ez negar egin, maitea.

5. Nork esaten du murrua
ez daitekeenik erori?
Estutzen zaizun larrua
bada nahikoa galzori.
Aska ezazu barrua,
ondo dakit zer den hori...
ez dela nire errua
baina ez zaudela ongi.

6. Ez da samurra egien
aho-zapore totela,
sentitu arren alien
zeure etxean zaudela
ziurrenik "*carpe diem*".
Korritu zaizu rimmela...
akaso bazenekien
nik ere banekiela.

7. Baina nahi bainuen bizi
aske bezain efimero
ez biktimismo, ez luizi,
hautua hautuan bego.
Zure agurra iritsi
baldin bada honezkero
onartuko dut lehenbizi
ta ulertuko dut gero.

8. Oro ez da laztan, musu...
hau ez da hausnartua bart,
beti dira arriskutsu
izan beharraren trabak.
Zoaz urrun, aldendu zu,
joan, askatu erabat.
Zuk eskubide bat duzu
ta, beraz, nik ardura bat.

9. Zu isilik. Antza, hautsak
neuk mugitzea aski zen,
komunikazio-pausak
maiz ez ditut digeritzen.
Bota gabeko perpausak
osatzeraz ohitu nintzen
zergatik ez zara gauzak
esatera atrebitzen?

10. Oroitzapenak multzoka
gorde ditut zuregandik,
orduak moztu zen soka;
kolpea orain eman dit.
Nola bi aste masoka
igaro ditudan handik
amaitu ez zenuen zopa
mahaian dago oraindik.

11. Gogamena ordudunik
dut pixkanakako mudan
zure hitzak nik esanik
zeu burumakur, menturan.
Nahiz berandu den jadanik
orain ipini dut dudan
zu isiltzen zinen ala nik
isilarazten zintudan.

12. Zurekin daramazunak
mindua horren da ubela...
Gaur ere horditasunak
pasarazi dit gaubela.
Zinenaren oihartzunak
utziz geroztik hau gela
uste dut isiltasunak
ni seinalatzen nauela.